

*“Menturari hiru dohain zor dizkiot: emakume sortu izana, klase sozial apalekoa, eta herrialde eta kultura zapaldukoa, eta hiru bider errebelde izateko aukera eman izana”.*

*Maria Mercè Marçal*



### EDITORIALA

## BERDINTASUNA ETA EUSKALGINTZA.

**Euskararen sustapena egungo gure jendartearen erronken artean dago.** Horren erakusle dira euskara biziberritzeko lanean ari diren elkarte eta erakundeak, egin diren plangintzak eta arauak, eta martxan jarri diren ekimenak. **Berdintasuna ere erronka soziala da.** Bidezkoagoa eta hobea izango den jendartea helburu baldin badugu, emakume eta gizonen berdintasuna gure gaur egungo erronka garrantzitsuen artean kokatu beharra dugu, eta hori adierazten digute berdintasunaren inguruko ekimen sozialak eta gure erakundeek sustatutako lege eta politikek. Beraz, **bi erronka sozial garrantzitsuren aurrean gaude eta zeharkako gaiak dira gainera; gure politika guztietan presente egoteko eta eragiteko xedea dute biek.**

Illo horretatik, jakin badakigu azken aldian, **ugaritzen ari direla feministen eta euskal hiztuenen arteko aliantzak aldarrikatzen duten ahotsak.** Horren adierazle dira, besteak beste, Idurre Eskisabel, Mari Luz Esteban, Lorea Agirre eta Jone Miren Hernandez. Horren harira, Idurre Eskisabelek adierazten du **“tresna teoriko eta diskurtsiboetan, baita hainbat praktikan ere, euskalgintzak eredu interesgarria duela feminismoan. Era berean, euskalgintzak urte askotako bide oparo eta askotarikoa egin du, eta horretan, feminismoak ere badu non arakatu.** Oraindik, praktika zehatzetan erabateko sinergiak lortzea ez da erraza, baina iruditzen zait elkar begiratze, elkar ukitze, elkar ikaste eta

elkar ulertze bide interesgarri bat abian dela”.

Tanttakaren ale honetan, **hausnartu dugu euskalgintza eta generoaren inguruan.** Horretarako, elkarrizketa egin diogu Idurre Eskisabeli, Kazetaritzan eta Antropologian lizentziaduna. Horrek hitz egin digu errealitate soziolinguistikoa emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen inguruan eta euskalgintzaren eta feminismoaren arteko sinergiak erakitzearen inguruan duen iritziaz. Gainera, beste kontu batzuetaz gain, Elhuyarrek Vitoria-Gasteizko udalerako egindako “Nola txertatu genero ikuspegia hizkuntza politikan?” lanean argituratutako zenbait informazio azaldu dugu.



**Zeintzuk dira errealitate soziolinguistikoan emakumen eta gizonen arteko desberdintasun nabarmenenak?**

**E**gin dira, eta egiten ari dira urrats garrrantzitsuak, baina ziur aski, oraindik ikerketa esparru handia dago alor honetan. Nolanahi ere, hizkuntza praktikak jendarte harreman, eta, beraz, botere harremanekin estuki lotuta daudenez, argi dago generoak, hau da, sozialki emakume edo gizon izateak, eragiten duela hizkuntza jokabideetan. Esaterako, historikoki euskaltzaletasunak andrazkoei eman die transmisioaren ardura, zaintzarekin, etxearekin eta eremu pribatuarekin lotuta: ama-hizkuntzaren kontzeptua gurean oso errotutako irudia da, euskara amaren bularretik edo altzotik jasotzea, eta horren arabera balioztatzea. Esango nuke, erantzunkizun hori jaso izanak historia garaikideko zenbait sasotan euskaltzaletasunaren eremuan kokatu diren emakumeei eman diela gainerakoan gaitza izango luketen bitzita publikorako aukera. Euzko Emakume Batzako kideak, frankismoko andereñoak, ikas-toletan edo gau-eskoletan aritutakoak, eta, oro har, 60-70ekoetako euskal pizkundean era batera edo bestera parte hartutakoak datozkit, esaterako, burura.

**BAINA SORTZEN ZAIDAN GALDERETAKO BAT DA TRANSMISIOAREN ARDURA, BATIK BAT, EMAKUMEEN ESKU LAGA IZANAK EZ OTE DUEN EUSKARAREN KONTSIDERAZIO SOZIALA INTIMIZATU;** hau da, **etxerako, goxotasunerako, kontu txikiatarako izatearen kera ez ote dion erantsi, eta gizon/aiten izaera publikoari lotu espainiera eta frantsesa. Hau da, barneratu ote dugun lanerako, politikarako, plazarako hizkuntza hegemoniko horiek direla lanabes egokia. **IKERKETEK****

**IDURRE ESKISABEL LARRAÑAGA: KAZETARIA ETA ANTROPOLOGOA. EHUKO IRAKASLEA, INFORMAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEAN.**

*Uste dut tresna teoriko eta diskurtsiboetan, baita hainbat praktiketan ere, euskalgintzak eredu interesgarria duela feminismoan. Era berean, euskalgintzak urte askotako bide oparo eta askotarikoa egin du, eta horretan, feminismoak ere badu non arakatu.*

**DIOTE GAUR EGUN ERE AMAGANDIK JASOTAKO HIZKUNTZARI LEIALTASUN BEREZIA DIOTELA HAURREK. Ez amek biologikoki eta esentzialki hizkuntzari ezer diotelako, baizik eta umeak amekin egoten direlako oraindik orain aitekin baino askoz denbora gehiago.** Hori horrela izanik, **OINARRIZKO LEIALTASUN HORI AITORTUTA, HARRIGARRIA DA GERO PLAZARAKO BESTE HIZKUNTZEN HAUTUA EGITEA NAGUSIKI.** Genero rolerkin eta gurasotasunarekin lotuta, hor bada jada jorratzen ari diren bide interesgarri bat.


Horrez gain, gure sexu/genero sistemaren ezaugarri nagusietako bat da sozializazio bide diferenteak eskaintzen dizkiela umei gero batzuk gizon eta beste batzuk emakume izan daitezen. Hain zuzen ere, neska/emakumeak araua betetzen eta erreproduzitzen trebatuko dira; mutil/gizonek, aldiz, izango dute arauak urratzeko baimena gero berriak sor ditzaten. Alde horretatik, euskararen gaineko debekua gogorren zenean emakume askok hizkuntza hegemonikoa hartu zuten, arau indartzailea, batik bat, plazara ateratzeko. Orain, **eskolaren bidez-eta euskara arau dela uler daitekeenean neskek eusten diote fidelago multilek baino.** Honetan ere badira pentsatzeko ertzak, hizkuntza politika eragingarri baterako kontuan hartzekoak.

**Posiblea da euskalgintzaren eta feminismoaren arteko sinergiak eraikitzea?**

**P**osible ez ezik, urratu beharreko bidea dela esango nuke. Sexu/genero sistemak gure eguneroko bizitzetan milaka laguni eransten digun gatazkak eta beste hainbesteri eguneroko ber horretan eragiten digun hizkuntzarenak lotura zuzena dute pertsonon burujabetzarekin, nor izatearen hautuarekin. **Gure egungo jendartean emakume eta euskal hiztun izateaz menperakuntzarako bide dira, botere harremanak ez direla linealak, aitziti-**

**tik, sare konplexua josten dutela, eta emakume guztiak zein euskal hiztun guztiak sare horretan ez direla beti leku berean kokatzen aintzat hartuta ere.** Alegia, kontuan hartu arren emakume dirudun izateak gizon migrante prekarioen gainetik jarriko zaituela, edo euskal hiztun izateak egoera zehatz batzuetan abantaila emango dizula, oro har, subalternitatean ezartzen zaituzte. Eta **PENTSAMENDU HEGEMONIKOAK, BAI SEXU/GENERO SISTEMARI DAGOKIO-LA, BAI HIZKUNTZA PRAKTIKEI, LOGIKA BERDINTSUA ERABILTZEN DU MENPERAKUNTZA HORI GERTA DADIN: NATURALIZAZIOA.** Hain zuzen ere, emakumeoi ezaugarri jakin batzuk atxikitzen dizkigu: zaintzarako joera, etxerakoa, naturarekiko lotura, emocional eta intuitiboak izatea arrazional orde... antzerako ezaugarriak atxikitzen dizkio euskarari ere; hots, eremu publikorako gaitasuna eta balioa ezabatzen duten ezaugarriak, unibertsal eta ardatz izatekoak. Eta berez ezaugarri horiek atxikitzen dizkigunez, horren ondorio ezinbesteko eta aldaezin gisa aurkezten digu subalternitate egoera.

Teoria feministak hori guztia desmuntatu du, eta horrez gain, identitatearekin, emakume izatearekin, partikularitatearekin lotutako zegoen azpiratze arazoa unibertsal izatera eramanez du: pertsonen eskubideen arloan kokatzera, demokrazia eta justizia sozialaren arloko. **USTE DUT TRESNA TEORIKO ETA DISKURTSIBOETAN, BAITA HAINBAT PRAKTIKETAN ERE, EUSKALGINTZAK EREDU INTEESGARRIA DUELA FEMINISMOAN. ERA BEREAN, EUSKALGINTZAK URTE ASKOTAKO BIDE OPARO ETA ASKOTARIKOA EGIN DU, ETA HORRETAN, FEMINISMOAK ERE BADU NON ARAKATU.** Oraindik, **praktika zehatzetan erabateko sinergiak lortzea ez da erraza, baina iruditzen zait elkar begiratze, elkar ukitze, elkar ikaste eta elkar ulertze bide interesgarri bat abian dela.**



EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIARI EZ  
NO A LA VIOLENCIA  
CONTRA LAS MUJERES

## PUNTU LILA – EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKAKO SINBOLOA.

Azaroaren 25a, Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna badatorrela eta, hemen duzue emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako sinboloa deskargatzeko aukera, **puntu lila (sakatu hemen irudia deskargatzeko)**. Sinbolo hau publikoki erakusteak **berarekin dakar emakume eta gizonen arteko berdintasun eza oinarri duen era honetako indarkeriaren kontrako konpromiso aktiboa**.

Hilabete honetan zehar honen erabilera egin dezazuen eskatzen dizuegu, irudi hau publikoa egitea zuen mezuetan, zuen webguneetan, sare sozialetan, egoitzetan, eskutitzetan, eta bururatzen zaizuen leku guztietan.

## ZUREA DA HITZA!

*“Zein izan daiteke zure ustez lan ildorik garrantzitsuenaren genero ikuspegia txertatzeko hizkuntza politikan?”*



*Jorge Gimenez Bech*  
“Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziozako zuzendaria”

Euskadin egiten dugun hizkuntza politikak gizarte kohesio-tuago bat du helburu, eta, horretarako, hizkuntzen arteko aukera berdintasuna bultzatzen du, nagusiki. Ikuspegi horretatik, eta nahiz eta euskarak (bere tipologiagatik) ez duen gaztelania, adibidez, duen arazo bera, euskararen erabilera demokratikoa eta, beraz, ez sexista sustatzen eta hedatzen laguntzea izan daiteke alor horretako lan ildo nagusia, beti ere kontuan izanik euskararen erabilera etengabe areagotzea dela gure hizkuntza politikaren iparra.

patriarkalari.



*Bego García Martínez*  
“Berdintasun teknikaria”

Euskararen normalizazioa eta genero berdintasuna antzekotasun asko dituzten bi prozesu pertsonal, sozial eta politiko dira. Bestalde, jakina da euskal hiztunak eta emakumeak subordinazioan gaudela eta horrek garrantzizkoak diren eredu bati aurre egitera. Hizkuntzaren praktikan, gaztelaniaren hegemoniari aurre egin behar diogu. Eta berdintasunean jendarte eredu erabat

Bien aurkako zapalkuntza moduak berberak dira, eta, beraz, subordinazioari aurre egiteko diskurtso eta praktikak partekatzea onuragarri izan daiteke. Diskurtso eta praktika horiek feminismoak landutakoak izan daitezke, hau da, jakitea subordinazioa bizi dugula, desberdintasuna bizi dugula, injustizia bizi dugula. Eta horren ostean, jabetzea, konturatzea, ahalmentzea, eta jabetu eta gero gai izatea horri aurre egiteko.

## Ba al dakizu?

### NOLA TXERTATU GENERO- IKUSPEGIA HIZKUNTZA POLITIKAN?

- Hizkuntzaren transmisioa amari lotua dago, oraindik ere, eta amaren Hizkuntza-identitateak aitarenek baino pisu handiagoa du.
- Neska eta mutilen sozialisazio-prozesu bereziak badu eraginik batzuek eta besteek erabiltzen duten hizkuntza.
- Lan munduan, emakumeak bete ohi dituzten lanbideetan, euskararen eskaera eta erabilera altuagoa da.



### IRAGANETIK ETORKIZUNERA EUSKARAREN BIDETIK, HAUSNARKETA BAT GENEROAREN IKUSPEGITIK

Jone Miren Hernández antropologoak etengabe landu ditu feminismoa eta euskara, batzuetan elkarrengandik hurbil eta besteetan urrun, baina inoiz ez feminismoaren betaurrekorik gabe. Bere ustez, azken urteotan zerbait mugitzen hasi bada ere, euskararen ibilbideak lotura ahula izan du genero ikuspegiarekin.

Jone Miren Hernández García, 2014ko udaberrian, Gasteizen, Emakumeen Berdintasunerako eta Jabekuntzarako eskolaren eskutik hitzaldia eskaini zuen: *Iraganetik etorkizunera euskararen bidetik, hausnarketa bat generoaren ikuspegitik*. Hitzaldi osoaren bideoa izenburuan klikatuz aurki daiteke.

